



OSOKO BILKURA

SESION PLENARIA

TOKIA / LUGAR: Udaletxea
EGUNA / FECHA: 2/7/2014
HASIERA / INICIO: 19:30
AMAIERA/FINAL: 19:45

BERTARATUAK / ASISTENTES:

ALKATEA/ALCALDESA

Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda (BILDU)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:

Ziortza Bilbao Agirre (Bildu)

Jone Miren Arrasate Urquiaga (Bildu)

Miren Nekane Renteria Echevarria (Bildu)

María Begoña Salbidegoitia Arana (Bildu)

Jon Ander Zulueta Andicoechea (Bildu)

Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)

Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)

Andrés Zearreta Otazua (EAJ-PNV)

IDAZKARI NAGUSIA/ SECRETARIO GENERAL

Víctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ez Ohikoa / Extraordinaria
DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera



Busturiko Udaletxean, aipatu egun eta orduan, Alkatea Mahaiburu eta goian aipatu zinegotziak bertaratuta, Udalaren Osoko Bilkura bildu zen ohiko bilkura lehen deialdian burutzeko. Saioan ebatzitakoaren fede Udaleko Idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarezek eman zuen.

Alkate Andreak aginduta hasiera eman zitzaion bilerari zinegotziei nahikoa denborarekin banaturiko gai-zerrendaren arabera, honako akordioetara iritsita:

En la Casa Consistorial de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa, y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió el Ayuntamiento Pleno, al objeto de celebrar sesión extraordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden de la Sra. Alcaldesa dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

1.- Interneten bidezko irainen inguruko proposamena.-

Alkate andreak Interneten iraintzearen gainean EH Bilduk aurkezturiko ondoko mozioa irakurri zuen:

“Joan den apirilaren 20an, Erroxeli Ojinaga jaunak “Busturia Eginez” blog-ean “El Monopoly de Busturia: ¿Qué hay de lo mío?” izeneko artikulu bat argitaratu zuen, bertan Andoni Elorrieta jaunaren kontra salaketa larriak egiten dituela. Besteak beste, udalerriko alkate ohia dela eta hirigintza plangintza oso ondo ezagutzen duenez, horretaz baliatu izan dela bere adiskideen artean mesedeak banatzeko. Gainera, artikulu horretan esaten da Andoni Elorrietak agiri ofizial batzuk dauzkala ez dituenak eduki behar eta bide batez, Busturiko Udala hirigintza plangintza ilunpetan eta gardentasunik gabe tramitatzen ari dela ere bota du.

Ez da lehenengo aldia pertsona honek holako salaketa maltzur eta faltsuak egiten dituen Busturiko Udaletxeko kideen edo kide ohien kontra. Ojinaga jaunari pertsonaren bat ez bazaio gustatzen, dena delakoarengatik, bere izena zikintzen saiatzen da, kritika politikaren atzean ezkutatuta. EH Bilduko militanteak badakigu eta onartzen dugu jende guztiak ez duela gure ikuspegia ezta gauzak egiteko gure era konpartitzen eta, beraz, kritika ulertzen dugu. Baina ezin duguna ez onartu ezta ulertu ere dira Erroxeli Ojinaga jaunaren jarrera bezalakoak, koalizio honen kideen kontrako salaketak botaz behin eta berriro, kritika barik iraina eta kalumnia besterik ez direnak. Kasu hau bereziki larria da, eta Busturiko Udala ukitzen du, Andoni Elorrieta lehenengo zinegotzia eta gero alkatea izan zelako, eta legez kontrako helburuetarako hortaz baliatu izanaz akusatu zaiolako.

Hau guztiau dela eta, Busturiko EH Bilduk hurrengo erabaki hau har dezala proposatzen dio Udalbatza Osoari:

1. Busturiko Udalak Erroxeli Ojinaga Filibi jaunaren ekimen hauek gaitzesten ditu, Busturiko Udalaren lanaren gainean mesfidantza eta susmo txarrak zabaltzen saiatu

1.º.- Propuesta sobre injurias en internet.-

La Sra. Alcaldesa dio lectura a la siguiente propuesta de EH Bildu sobre injurias en internet:

“El pasado 20 de abril, D. Erroxeli Ojinaga publicó en el blog “Busturia Eginez” un artículo titulado: “El Monopoly de Busturia: ¿Qué hay de lo mío?” en el que vierte graves injurias contra D. Andoni Elorrieta, acusándole de abusar de su condición de ex-alcalde del municipio y por lo tanto conoedor del planeamiento urbanístico para repartir favores entre sus amigos. En dicho artículo, además, afirma que D. Andoni Elorrieta tiene en su poder documentación oficial que no debería poseer y aprovecha para acusar al Ayuntamiento de Busturia de oscurantismo y falta de transparencia en la tramitación del planeamiento urbanístico.

No es la primera vez que esta persona arremete contra miembros o ex miembros del Ayuntamiento de Busturia con acusaciones falsas e insidiosas. Bajo el disfraz de la crítica política, el Sr. Ojinaga se dedica a ensuciar el buen nombre de todo aquel que por algún motivo no es de su agrado.

Los y las militantes de EH Bildu aceptamos y asumimos que no todo el mundo comparte nuestra visión ni nuestra forma de hacer las cosas y, por lo tanto, entendemos la crítica, pero lo que no podemos aceptar ni siquiera entender son actitudes como la de D. Erroxeli Ojinaga, que una y otra vez intenta desprestigiar a miembros de esta coalición con acusaciones que exceden con mucho de lo que debería ser una actitud crítica y caen de lleno en el insulto y la calumnia. Este caso es especialmente grave y afecta al Ayuntamiento de Busturia, ya que D. Andoni Elorrieta fue primero concejal y luego Alcalde del municipio, y se le acusa de valerse de ello para fines espurios.

Por lo tanto, EH Bildu de Busturia propone al Pleno del Ayuntamiento la adopción del siguiente acuerdo:

1. El Ayuntamiento de Busturia reprueba tajantemente estas actuaciones de D. Erroxeli Ojinaga Filibi, que tratan de



delako herritarren artean, eta berdin bere kideen eta kide ohien lanaren gainean ere.

2. Udal honek ez dauka zalantzarik txikiena ere Andoni Elorrieta jaunak beti jardun duela zuzen eta zintzo, bai Busturiko udalkidea izan denean eta baita gero ere.

3. Busturiko Udalbatza Osoak Andoni Elorrieta jaunari bere elkartasuna adierazi nahi dio, eta laguntza eskaintzen dio, legezko ekintzak aurrera eramatea erabakiko badu.

4. Era berean eskubide bardina aitortu behar zaio Busturiko Udaleko kargu publikoa izateagaitik kalumnia sufritu duten pertsona guztiei.

5. Mozio honen bidez Busturiko zinegotziek Erroxeli Ojinaga jaunaren jardueraren gaitzespen erabatekoa adierazten dute”.

Era berean, Busturiko hainbat bizilagunek sinaturiko ondoko idatzia irakurri zuen:

“Atzamarra seinalatzerakoan, ilargia ezkututzen da

1.- BILDUren lerro politikoa bere HERRI PROGRAMAn zehazturik dago eta bere garapena bere batzordeek eta batzarrek harturiko baliozko erabakien arabera da. Zentzu honetan bere barneko karguen eta zinegotzien portaera guztiek, inolako salbuespenik barik, bete behar duten KODE ETIKOAK arauturik dago.

2.- Koalizioa osaten duten hiru alderdien (EA, EZKER ABERTZALEA eta ALTERNATIBAren) estilo politikoa ez da, eta ez da inoiz izan, disidentzia kriminalizatzea eta gutxiago oraindik oinarri gehiago edo gutxiagorekin kritika lezaketen herritarren ekintzak “kondenatzea” edo “gaitzespen orokorrak” egitea. Izan ere, gizarteko gatazkak konpontzeko bidea, beste hau da, hots: ideien kontrastaketa baketsua, elkarrizketa, entzute aktiboa eta komunikazioa, gizarteko liskar handiagoak eta, hurrean, auzibide prozesuan bukatuko direnak ekiditeko balioko dutenak. Horrela, herritarren arteko harremanak errazten dira, herritarren artean elkarbizitza sustatzen da, harremanen eraikuntzan eta elkarrizketan oinarrituta.

3.- “BUSTURIA EGINEZ” Bloga ezkerreko independentista den lerrokada ideologikoa daukan eta, era berean, Busturirekin, bertako herritarrekin eta auzuneeekin zerikusi duten arazoak ikusteko erari jarraitasun informatibo bat eta interkomunikazioa ematea helburutzat daukan talde baten adierazpen iraunkorri buruzko foro bat da, eta orain merezi du gogoraraztea bere ibilbidea 2006an hasi zuela. Arrezkero, elkarrekin jakin batzuei gustatzen ez zitzaiezen zerbait argitaratzen zenean, adierazpen askatasunaren kontrako mota guztietako amarru eta presioak sortzen ziren, baina, gauza bitxia, inork ez zuen argitaratzen erantzunik eta ez zuen eskatzen, kasua zenean, dagozkion zuzenketarik. Eta horrek, luzarora,

sembrar en la ciudadanía desconfianza y sospechas sobre el trabajo del Ayuntamiento de Busturia como institución y el de sus miembros actuales y pasados.

2. Este Ayuntamiento no tiene ni la más mínima duda de que D. Andoni Elorrieta ha procedido en todo momento, tanto durante su mandato como corporativo de Busturia como después, con total honestidad y corrección.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Busturia expresa su solidaridad con D. Andoni Elorrieta y le ofrece su apoyo incondicional para las acciones legales que en su caso acometa.

4. Asimismo también se le reconoce el mismo derecho a toda persona que haya sufrido calumnias debido a su actividad como cargo público en el Ayuntamiento de Busturia.

5. Las y los concejales del Ayuntamiento de Busturia manifiestan su total reprobación a la conducta de D. Erroxeli Ojinaga.”

Asimismo dio lectura al siguiente escrito firmado por varios vecinos de Busturia:

“Al señalar el dedo se oculta la luna.

1.- Que la línea política de BILDU está definida en su HERRI PROGRAMA y su desarrollo está sometido a los acuerdos válidos adoptados por sus comités y asambleas internas en conformidad con dicho programa. En este sentido la línea de comportamiento de su cargos internos y ediles está regulado por un CÓDIGO ÉTICO de obligado cumplimiento para todos ellos y ellas, sin excepción.

2.- Que no es, ni ha sido nunca, parte del estilo político de las tres partidos que forman la coalición (EA, IA y ALTERNATIVA) criminalizar la disidencia y menos aún llevar a "condenas17 o "reprobaciones genéricas" las acciones de vecinos y vecinas que pudieran criticarles con más o menos fundamento. Todo bien, que la vía de la resolución de los conflictos sociales es otra, basada en la confrontación pacífica de las ideas, el diálogo, la escucha activa y la comunicación, que sirvan para evitar mayores enfrentamientos sociales y la probable culminación de los mismos en proceso contencioso. Con ello se preservan las relaciones vecinales, fomentando así la convivencia entre el vecindario, desde la base de la construcción relacional y el diálogo.

3.- Que el Blog "BUSTURIA EGINEZ" es un foro de expresión permanente de un colectivo cuyo alineamiento ideológico es Independentista de Izquierdas y que tiene como fin dar continuidad informativa e intercomunicación a su forma de ver los problemas que afectan a Busturia, a sus gentes y sus barrios y que inicio su andadura, cabe recordarlo ahora, en mayo de 2006. Desde entonces, cada vez que se publicaba algo que no gustara en determinados círculos se iniciaban



argitaratutako artikuluen egitasuna frogatzen du, edo, bestela, aipatu blogean argitaratutakoari erabateko mezbepuzua diotela, zeren ez baitugu pentsatu nahi urte horietan argitaratutakoa egian eta zehaztasun intelektualean oinarrituta gezurtatzeko gaitasunik ez dela egon.

4.- "El monopoly de Busturia" artikulua lau gauza nahi ditu. Lehenengo eta behin, argitu nola eta noiz zabaldu diren, ezkutuka edo isilean, guk zehazki 2013ko abenduan ikusi ahal izan genituen Busturiko PGOUren dokumentu grafiko jakin batzuk (gogorarazi behar dugu garai hartan oraindik Talde Erredaktorearen eskuetan zegoela). Bigarren, argitu kargua utzirik duen Hirigintzako Zinegotzi jaunak nola eman dizkien, ustez, aipatu PGOUko zati baten kopiak herritarrei edota nola erakutsi ahal izan dituen publikoan. Hirugarren, Hirigintza Planari buruzko eztabaida bat, argia eta zehatza, eskatzea. Eta laugarren, eta ez, hala ere, azkenez, BILDURI eskatzea irregularitate etiko horren aurrean neurriak hartzeko. Kasu batean ere ez zen kritikatzeko Koalizio Subiranista eta, gutxiago oraindik, Udala erakunde legez, bere egunean aurkezturiko Mozioaren idazleek orain sinestarazi nahi dituzten arren.

5.- Ez da ulergarria zinegotzi ohiari egitea mozioan agertzen den bezalako errugabetze orokorra eta Udalean lehen egindako lanei buruzko goraiapamen orokorrak, gainera interesatuarengandik datozenean, zeren berak ere parte hartu baitu mozioaren proposamenean. Herritar askok Hirigintzaren eta Ingurugiroaren alorretan egin duen lanari buruz beste datu batzuk eta erabaki gabeko arazoak ditugu, eta kasuren batean gainera herri diruaren kuxari milioiak kostatu zaizkion epailearen sententziak.

6.- Azken batean, BILDUK Udalaren osoko bilkuran aurkeztu duen mozioak koalizio hori Udalerri honetan zuzentzen dutenen sentimendua eta jarrera ordezkatzeko eta ez Ezkerreko Koalizio Politikoa Subiranistaren boto-emaitzen eta jarraitzaileen gehiengoarena. Dena dela, boto-emaitzen eta jarraitzaileen taldeari ez zaio informaziorik eman publikoki eta egiazkotasunez aipatu mozioa oinarritzen dela dioen gertaerei buruz eta ez zaio kontsultatu mozioaren premiari eta helburuei buruz ere.

7.- Beraz, justiziazko deritzogu aipatu mozioa erretiratzea. Eta, gainera, berehala egiteko eskatzen dugu. Eta berriro errepikatzen dugu kasu guztietan martxan jarri beharko litzatekeela eztabaida demokratikoa, argia eta gardena, hala "Busturia Eginezek" bere egunean argitaratu zuenaren egiazkotasunari buruzkoa nola argitaratutakoa sinatu zuen pertsonaren kontra gaur botatzen diren akusazioei buruzkoa ere. Horixe baitzen, hain zuzen ere, Busturia Eginezek nahi zuena. Beste gogoeta batzuetatik haratago, horixe da

todo tipo de maniobras y presiones contra la libertad de expresión, sin que, curiosamente, nadie se dignara en publicar respuesta alguna y, en su caso, exigir las rectificaciones pertinentes. Lo que a la larga viene a demostrar, o bien la veracidad de los artículos publicados, o bien un desprecio total a lo publicado en dicho Blog, por no pensar en la posibilidad de que no hubiera capacidad para rebatir lo publicado durante estos años en términos de verdad y rigor intelectual.

4.- Que el artículo "EL monopoly de Busturia" pretende cuatro cosas. En primer lugar, aclarar cómo y cuándo se han filtrado ciertos documentos gráficos, que en concreto hemos podido ver en Diciembre de 2013, del PGOU de Busturia (que por entonces, debemos recordarlo, estaba todavía en manos del Equipo Redactor). En segundo lugar, aclarar cómo es que el Sr. Concejal de Urbanismo saliente haya entregado, supuestamente, copias de parte de dicho PGOU a vecinos y/o haya hecho demostración de los mismos en público. En tercer lugar, reclamar un debate con luz y taquígrafos del Plan Urbanístico. En cuarto pero no último lugar, pedir a BILDU que actuara ante esa irregularidad ética. En ningún caso se criticaba a la Coalición Soberanista, ni menos aun al Ayuntamiento como institución, como pretenden ahora hacernos creer los redactores de la Moción presentada el día veinte de junio de 2014 y número de registro 728.

5.- Que no es entendible una exoneración general como la contenida en la moción, ni unas loas generales al ex-concejal sobre sus trabajos pasados en el Ayuntamiento, más cuando provienen de parte interesada, ya que el mismo ha intervenido en la propuesta de moción. Muchos vecinos y vecinas tenemos otros datos y asuntos pendientes sobre el trabajo en el campo del Urbanismo y Medio Ambiente, y en algún caso sentencia judicial al respecto con costo millonario a las arcas públicas.

6.- Que en definitiva la moción presentada por BILDU ante el Pleno Municipal representa el sentimiento y posición de quienes dirigen esta coalición en este municipio de Busturia y no la de la mayoría de votantes y simpatizantes de la Coalición Política Soberanista y de Izquierdas. En cualquier caso, el colectivo de votantes y simpatizantes ni ha sido informado de manera pública y veraz sobre los hechos en que dice basarse dicha moción, ni ha sido consultada sobre la necesidad y objetivos de la misma.

7.- Por lo que consideramos de justicia que se retire dicha moción. Lo que exigimos que se haga de inmediato. Reiterando que en cualquier caso cabría poner en marcha un debate democrático, claro y transparente, tanto sobre la veracidad de lo que en su día publicó "Busturia Eginez", como



erabakitzeko dagoen eztabaida. Azken finean nahi dena da BILDUK bere Herri Programa eta Kode Etikoa argitaratu zuenean bere militanteekin, jarraitzaileekin eta boto-emaleekin hartu zuen zorra era argian eta demokratikoan ordaintzea”.

Zearretak jaunak adierazi zuten, EAJko zinegotzien izenean, ez zeudela pozik EH Bilduk bere mozioan eginiko aldaketekin, eta euren ustez ez direla nahikoak, beraz, euren proposamena aurkeztu zuten, ondokoa, hain zuzen:

“EH Bilduk aurkeztu berri du mozioa non gaitzesten diren ezker abertzalearen zinegotzi ohi batek beste pertsona baten aurka egindako adierazpen publikoak (ezker abertzalearen alkate ohi baten aurkakoak, hain zuzen). Ezker abertzalearen ustean pertsona jakin baten izen onaren aurkako ekimenak egiten ari omen dira.

Aldiz, ez da memoria handirik izan behar ezker abertzaleak berak egindako adierazpen publikoetan EAJ-PNVren kideen aurkako eraso pertsonal zitalak ugariak izan direla jakiteko. honelakoak ikusi ziran ustez iraindua izan den Alkate-ohiaren legegintzaldian, arinagokoetan,...eta oraingo legegintzaldi berebanean ere!!!

Honen aurrean EAJ-PNVek honako hau adierazi nahi du, udal batzari Idatzitakoarekin bat egiteko eskatuz:

1. Udal Batzak gaitzesten ditu edonolako eta edonork egindako eraso pertsonalak.
2. Mota honetako ekimen zitalak, pertsonak eta familiaK minduz aparte, herri garapenean eta politikan ari garenongan mesfidantza eta susmo txarrak zabaltzen baiditu.

Bozketara eramanda, proposamen biak onartu ziren ondoko emaitzekin:

- a) EAJrena: aldeko zazpi boto eta kontrako birekin.
- b) EH Bildurena: aldeko sei boto eta bi abstentziorekin.

Eta besterik gabe, alkate andereak amaitutzat eman zuten saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, alkate andereak eta egiaztatzen dudana idazkariak sinatuta.

sobre las acusaciones que hoy se vierten contra la persona firmante de lo publicado. Que era lo que a fin de cuentas Busturia Eginez pretendía. Más allá de otras consideraciones ése es el debate pendiente. Se trata en definitiva de saldar de forma clara y democrática la deuda contraída por Bildu con sus militantes, simpatizantes y votantes cuando hizo público su Herri Progama y su Código Ético.”

El Sr. Zearreta, en representación del grupo de concejales de EAJ-PNV, manifestó que no se daban por satisfechos de las modificaciones introducidas por EHBildu en su moción, que consideraban insuficientes, por lo que presentaban su propia propuesta que es la siguiente:

“EH Bildu ha presentado una moción en la que denuncia las recientes prácticas de descalificación personal que realiza un ex concejal de la propia izquierda abertzale contra otra persona (ex alcalde de la propia izquierda abertzale) mediante la publicación de comunicados abiertos al público. Sin embargo, no hace falta tener demasiada memoria para encontrar en los comunicados públicos de la propia izquierda abertzale comentarios descalificativos o que simplemente se metían en la vida privada de los cargos electos o militantes de EAJ-PNV con el objeto ruin de descalificarles como personas o descalificar a su opción política. Hemos visto y sufrido estos comportamientos no solo en la propia legislatura en la que fue alcalde la persona supuestamente vilipendiada, ocurrió muchas veces antes, y iha ocurrido incluso en esta misma legislatura!

Ante este tipo de comportamientos EAJ-PNV quiere manifestar lo siguiente, solicitando a la corporación que lo comparta:

1. La corporación municipal reprueba todo tipo de actuaciones como las descritas, vengan de donde vengan.
2. Las actuaciones de descalificación personal ruines, además del dolor y malestar que causan en las personas y en sus familias, tan solo generan desconfianza y dudas con respecto a las personas que dedican su tiempo al desarrollo del municipio y a la política en general.”

Sometidas a votación, ambas propuestas fueron aprobadas con los siguientes resultados:

- a) la de EAJ-PNV, por siete votos a favor y dos en contra.
- b) la de EH Bildu, por seis votos a favor y tres abstenciones.

Y no habiendo más asuntos que tratar, la Sra. Alcaldesa dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, la Sra. Alcaldesa y el Secretario que certifico.



Busturiko
Udala



Akta

Alkatea/La Alcaldesa,

Idazkaria/El Secretario,

Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda

Víctor-Martín Amparan Álvarez